

EGIN

► ASTIGARRAGA

Julian Retegik irekiko du sagardo denboraldia

EGIN

Julian Retegi pilotari nafarrak emango dio ofizialki hasiera aurtengo sagardo denboraldiari. Petritegi sagardotegian egingo da ekitaldia eta, azken urteotan egin den moduan, San Sebastian jaiaren aurreko ostirala hautatu da txotx denboraldiari hasiera emateko.

Ospakizun modura bazkaria antolatu dute egun horretarako eta txalapartariak, bertsolariak eta

dantzariak ariko dira. Lehenago, Foru Aldundi eta Gasteizko Gobernuko Nekazaritzako ardura-dunek denboraldiko produkzioaren datuak azalduko dituzte.

Laugarren urtea da txotx denboraldiaren hasierarako pertsona ezagun bat gonbidatzen dena. Lehenengo urtean Andoni Egaña bertsolaria aukeratu zuten, hurrengoan Joxe Mari Bakerori suertatu zitzaion eta iaz Javier Clementek ireki zuen.